

Vargas Llosaren liburu baten inguruan literatur solasaldia izango da Loiolan

**'Ipuinaren ordua' programaren baitan ere beste saio bat izango da
astelehenean**

Donostia. Loiolako kultur etxeak ekimen berriak prest ditu datozen egunetarako. Besteak beste, gaur bertan literatur solasaldia izango da. Mario Vargas Llosa idazle peruarraren lan bat izango da hizketaldiaren ardatz: Loiolako kultur etxera gerturatzen direnek *Travesuras de la niña mala* liburuari buruz dituzten iritzi eta ekarpenak plazaratuko dituzte. Guztien arteko solasaldia koordinatu eta ordenatzeko, Jorge Carrero egongo da. Tertulia 19.30ean hasiko da.

Gainera, hurrengo astean ere hainbat ekintza izango dira Loiolan. Ipuinaren Ordua programak aurrera jarraituko du, esaterako. Astelehenean Zingulun, Zangulun, Monstrua gurekin dun istorioa kontatuko diete auzoko gaztetxoei. Liburutegian izango da eta arratsaldeko 18.00etan hasiko da. Ipuina euskaraz da eta zehazki hiru eta bost urte arteko neska-mutilei zuzenduta dago. Hurrengo astean ere beste saio batean parte hartzeko aukera izango dute. >n.g.